



Trollak bai, borroka ere bai

Nola eragin iritzi publikoan maskara digitala kendu gabe

Eta gainera: @aranagoiri eta @diariofatxo trollei elkarrizketak

Iritzi publikoaren izar anonimoak

Inork ez ditu ezagutzen eta halere, famatuak dira. Benetako izen-abizenak dituzten profil publiko askok baino jarraitzaile gehiago dituzte. Zirikatzaileak, sarkastikoak, gupidagabeak: trollak dira. Interneteko fenomeno marjinala ziren, anonimotasuna asmo suntsitzailez erabiltzen zuten pertsonaia gogaikarriak. Baina sare sozialen erabilera zabaltzearekin batera, maskara digitala asmo eraldatzailez erabiltzen duen belaunaldi berri batek protagonismoa hartu du. Troll politikoen fenomenoaztertzeraz gonbidatu nahi zaituztegu hilabete honetan. Iritzi publikoan eragingo duen fenomeno berri baten aurrean ote gaude?

■ **Egilea: Gorka Bereziartua Mitxelena**

Atzamarra zure begian sartzea beste zereginik ez duen tximinoa bezain gorrotagarriak izan daitezke: noizbait haietako batekin eztabaidatzeko “zortea” izan baduzu konturatuko zinen. Foroe-tan eta sare sozialetan elkarriketak lehertzeko asmo hutsez jarduten dutenei deitu izan zaie troll historikoki. Anonimotasuna baliatzen dute eta gainontzeko erabiltzaileen artean ohiko paramet-roen arabera gertatzen ari den elkarriketa han-kaz gora jartzea dute helburu. Tematuko dira erabili dituzun argudioen zatirik ahulenekin, kontraesanak bilatuko dizkizute, gaur mahai gai-

neratu duzun ideiarekin bat egiten ez duen zure iruzkin zahar bat bilatu eta harekin egingo dizute eraso eta, nazkatu eta haiei ez erantzutea erabaki duzunean ere, ez pentsa isilik geratuko direnik. “Eztabaida saihesten ari zara”, “ez al daukazu ezer esateko egin dizudan azken galderaz?”, “kai-xoooo, hor al zaude oraindik? Zerbait galdetu dizut eta ez didazu erantzun”.

Sistema eragileak kutsatzen dituzten birusen moduan funtzionatzen dute troll klasikoek pertso-nen arteko harreman digitaletan: kolokan jartzen

Azaleko irudia: Joseba Larratxe **Azala eta maketazioa:** Antza Komunikazio Grafikoa

LARRUN pentsamendu aldizkaria ARGIArekin batera banatzen da. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre Kerejeta. **Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L. **Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria **Posta elektronikoa:** larrun@argia.eus **Telefona:** (00 34) 943 37 15 45. **Inprimategia:** Antza Komunikazio Grafikoa (ARGIAren 2.450. zenbakiarekin banatua, 2015eko otsailaren 22an)

dute ordena, beren legeak ezartzen saiatzen dira, aurreikusten zailak diren eztabaida-mekanismoak erabiltzen dituzte. Urtetan fenomeno marjinala izan dena, Interneten ordu asko pasatzen zituzten artean aipatzen zen zerbait, bestelako dimentsioa hartu du Internet uneoro eskura daukagun tresna izatera pasa den honetan. Eta trollak ere askoz urrunago iritsi dira.

Goazen iazko udazkene-ra. Suedian gaude, Stockholm kanpoaldeko auzo batean. Robert Aschberg kazetaria hizketan ari da beisboleko txapela zikin xamar bat jantzita daukan 30 urte inguruko tipo batekin. Mutil argal eta lasaia, inolako arriskurik inspiratzen ez duena. Aschbergek zuzentzen duen *Troll ebiztaria* telebista saioko ikertzaileek badakite ordea, galdera deserosoei erantzun beharrezkin urduri jartzen hasia den pertsona hori espezierik txarreneko troll bat dela. Eskumotz jaio zen neska gazte bat obsesiboki jazarri zuen Instagramen eta Facebooken, etengabe bere gorputz-atalari buruzko irainak idatziz. Eta ez zen asteburu bateko kontua izan, hilabeteak pasa zituen geroz eta mezu itsusiagoak bidaltzen. Baina orain, telebistako ekipoak ehizatu duenean, dena ukatu du. 10 minutuz aritu da Aschberg galdera-erantzunekin aitortza lortu nahian, baina emaitzarik ez.



“Gezurti patologikoa da”, esan du kazetariak kamerak itzali eta autoan igo direnean, *MIT Technology Review* aldizkarian jaso dutenez. Programaren helburua ez da troll guztiei banan-banan maskara kentzea, sareko “gorrotoa” zenbaterainoko problema izan daitekeen erakustea baizik. Anonimotasuna baliatuz klasekideen kontrako gezurrak argitaratzen dituzten nerabeak, ordu libreetan webgune arrazista bat kudeatzen duen politikari profesionala, Zuzenbide ikasle bat, emakume baten sareko profila

erabiliz gizon bat bikote harreman batean endredatu nahi duena... Mota askotako troll kasuak pilatzen dira telebista saioaren karpitetan. Eta mundu osoko hedabideetan bihurtu da hizketarako gai, fenomeno —eta telebista saioa bera— interesa sortzen ari den seinale.

TROLL GUZTIAK DIRA GAIZTOAK (BAINA GAIZTO GUZTIAK EZ DIRA BERDINAK)

Troll txintxorik ezagutzen du inork? Guk ez. Interneteko pertsonaia hauen ezaugarri nagusia beraien izaera disruptiboa da. Bestela esateko, ganberrismoaren marratik harago daude troll hitzarekin definitu ditzakegun praktika gehienak.



Komunikazio anti-korporatiboa egiten duten trollek El Corte Inglés merkatalgune espainiarraren Twitter kontua ordezkatu zuten 2013an, Bangladesheko langileen egoera salatzeko

Baina horrek ez du esan nahi orain arte aipatutako kasuak direnik trollek esfera publikoan parte hartzeko izan ditzaketen modu bakarrak. “Troll politikoak” titulua jarri diogu LARRUN honi, izan ere, azkenaldian indarra hartzen ari dira programa politiko eraldatzailleek begi hobez ikusiko dituzten trollak. Bizpahiru ezagutu nahi?

Bangladesh, 2013. urtea. Ehungintzan lan egiten zuten 1.000 lagun baino gehiago hil dira Dacca hiritik gertu dagoen fabrika gertatutako istripuan. Herrialdeak inoiz ezagutu duen tragedia industrial handienetakoak agerian utzi du zein baldintza txarretan lan egiten duten Euro-par Batasuneko marka handien beharginek. Esklaboen pare, ia.

Marka horietako bat Espainiako El Corte Inglés da eta, gertakariak eragin duten eztabaidaren erdian, Twitter kontu bat agertu da, enpresa espainiarraren profil ofizialaren itxura berdinekoa. “*Ya es primavera en Bangladesh*” (Udaberria da Bangladeshen) idatzi dute, saltoki handiaren eslogana (“*Ya es primavera en el Corte Inglés*”, alegia, “udaberria da Corte Inglésen”) moldatuz. Sare sozialaren arduradunek kontua ezabatu baino lehen, beste zenbait mezu ere jaurtiko ditu txiosferara, besteak beste: “Preziorik onenak, kosta ahala kosta” eta “erabat penagarriak diren arren, 1.000 hildakok ezin dute hondatu milioika bezero zorionsuren poza”. Komunikazio anti-korporatiboa egiten duten trollak? Bai, gertatzen ari da.

Eta egunero gertatzen dira oso ezagunak diren politikariak, enpresariak eta... beno, jainkoa bera ordezkatzeko dituzten troll kontuak ere. Batzuk parodia nabarmenak dira, haien jarraitzaileek imitazio umoretsu batek eskaini deza-keena bilatzen dute –tira, hori uste dugu: Kristoren odol gehiegi edanda baten bat akaso iritsiko zen pentsatzera jainko kristauaren rola jokatzeko duten Twitter kontuak benetakoak direla–, baina beste batzuk lortu dute benetako pertsona ordezkatzeko, informatiboetako lehengai bihurtzeraino.

PSOEko Elena Valencianori gertatu zitzaion: 2012an, Kataluniako prozesu independentistaren eraginez bere alderdian federatuta dagoen PSC erabakitzeke eskubidearen aldeko jarrera agertzen hasi zenean, Valencianoren erabiltzaile-izen bera zeukan kontu bat mezu bitxiak idazten hasi zen. Tonua alderdi handi bateko lehen lerroan dagoen pertsona batena zen, eta edukia... “Argi utzi nahi dut nire erabateko errespetua PSCk hartzen dituen erabakiekin. Hartu duen deriba nazionalistarekin bakarrik nago desados”.

Irakurri esaldia berriz: ez al da nahiko sinesgarria? Profil publikoak ordezkatzeko ez da hain konplikatu gaur egun eta, kargu garrantzitsuak dauzkaten pertsonen sareetako mezuek hartu duten dimentsio informatiboa kontuan izanda, oposizio politiko trollaren ateak parez pare zaballik daude.

NOLA FUNTZIONATZEN DUTE TROLLEK?

Bolada batez zarata egin ondoren desagertzen diren animaliak baino gehiago dira: anonimoak izan arren milaka jarraitzaile dituzten kontu ugari ari dira eguneroko albistei buruzko iritzi, nola esan, *diferenteak* ematen. Maiz haien umorea aipatzen da, egunero janzten duten sarkasmo-trajea; baita diskurtso ofizialak barregarri uzteko konparazio exageratuak erabiltzeko joera ere.

Identitate digitalaren erabilera ezohikoak egin dituen gainontzekoen aldean desberdin. Kontzeptu horretaz ari garenean, hitz egiten dugu teknologia digitala erabiliz gure buruaz egiten dugun errepresentazioaz. Facebooken, Twitterren edo bihar goizean asmatuko den sare sozialean gure xedea, itxuraz behintzat, komunikatzea da: zerbait esan nahi diogu gure zirkuluan dagoen jendeari.

Baina mezu horiek metatuz identitate digitala sortzen da, nahiko koherentea izan daitekeen gure buruari buruzko diskurtso bat. Sareetan modu batekoak gara: idazkera jakin bat daukagu, erreferentzia sorta bat erabiltzen dugu, lagun batzuk, harremanetan jartzeko estilo bat... Gure izateko moduaren errepresentazio bat eraikitzen dugu. Bizitzaren beste esparruetan ere errepresentazioaren kontu hau ez da gauza berria —berdin hitz egiten al duzue lagunekin eta poliziarekin?—, baina identitate pertsonalek mugak dauzkaten lekuetan, digitalek VIP pase batekin egin dezakete aurrera, sareetan zure benetako izena ematea ez baita derrigorrezkoa —trafiko isunak ordaintzerakoan berriz, snif, bai—. Pertsonaia bat zerotik asmatzeko aukera baliatzen dute trollek sare sozialetan. Eta hezur haragizko pertsonak ez bezala, kritikarako askatasun handiagoa dute, fikziozko pertsonaiek ez baitute kontuak ematen ibili beharrik.

Anonimo izate hutsagatik troll ote zaren? Tira, gure asmoa ez da fenomenoaren definizio zurrunik ematea, beraz, auskalo. Ausartuko gara esatera, dena den, badela beste ezaugarri bat troll politikoaren jardunean maiz agertzen dena eta esparru politikoan eragiten dutenen kasuan oso eragin-korra dena: *détournement* delakoaz ari gara —“hizkuntzaren desbideratzea” nolabait—, Internazional Situazionistako kideek proposatutako teknika.

1950eko hamarkadan sortua, mugimendu situazionistak eragin handia izan zuen 1968ko



Robert Aschberg kazetari suediarren Troll ehizaria telebista programak sarean anonimoki idazten duten pertsonak identifikatzen ditu. Argazkian, eskumotz jaio zen neska bat jazarri zuen pertsona "ehizatu" eta galdekatu zuen momentua.

maiatzeko gertakarietan. Giro iraultzaile hartako esaldi famatu asko ezin dira ulertu *détournement*ak zertan datzan konprenitu gabe. Ea esplik dezakegun: indarrean dagoen sistemari aurre egiteko, ohiko mezu militanteak erabili beharrean, diskurtso nagusiaren testuaz birjabetzea proposatu zuten situazionistek, jatorrizko esanahia eraldatuz. Utikan kausa baten alde dauden testuak, testua bera da kausa; mundu guztiak ezagutzen dituen esaldi, eslogan eta mantren itxura-aldatzeek bat-bateko eragina lortzen dute.

Adibide praktiko batekin esplikatzeko badugu hobe agian, ezta? Demagun banku batek bere kanpainako eslogan gisa honako esaldia erabiltzen duela: “Zure bankua gara. Eta geroz eta jende gehiagorena”. Finantza erakunde hori kritikatu nahi duenak mila arrazoi jarri ditzake mahai gainean, baina lubakien gerra batean ariko da ur pistola batekin.

Zergatik ez erabili publizitate eslogana bera salaketa tresna gisa? Etxetik bota dutelako kaleko

“

Troll politikoen hizkera ez da diskurtso militantea. Borrokatu nahi duten boterearen hizkeraz birjabetzen dira maiz, mezu nagusia nagusien kontrako mezu bihurtuz

banku batean lo egin behar duen norbaiten argazkiarekin batera sarean partekatuz gero, mezu berdina goitik behera aldatzen da. “Banku” hitzaren esanahiarekin jolaste hutsa aski da gauzak ezin garbiago ulertarazteko: zure bankua kaleko hori da, bizimodu horretara kondenatu nahi zaitu banketxe honek, eta abar.

Eguneroko zarata mediatikoari aurre egiteko teknika erraz eta baliagarria delako, troll politiko askok erabiltzen dute birjabetze hori. Lerro hauek idatzi bitartean ikusitako bi adibide: “Falciani zerrenda” argitaratu da, zergak ez pagatzeko mundu guztiko aberatsek dirua Suitzara nola eramaten duten erakusten du. “Norbaitek bere dirua Suitzan ez edukitzea ETA da” txiokatu du @masaenfurecida-k, Espainiako *establishment*aren diskurtsoa bihurritzen duen trollak, gertatzen den guztia ETArekin estaltzeko alderdi politiko espainiarrek daukaten joera mezu labur baka-rean hankaz gora jarritz.

*Charlie Hebdo*ren aurkako atentatuen ostean, ekintza terroristetan inplikaturakoek nazionalitate frantziarra gal dezaketela? “DEIALDIA: Ekintza terrorista bat egin nahi duzu baina iritziz aldatu duzu nazionalitatea galtzeko beldurrez? Deituigu-zu”, idatzi du @humoureddroite-k, Frantziako eskuinaz trufatzen den troll ezagunak, kartel publizitarioetako hizkera imitatzen duen estiloan.

Bai, baliteke txisteak besterik ez izatea. Baina txisteek ere karga ideologikoa daukate eta, eguneroko albiste kontsumitzaileak bere sareetan ikusi ditugunak bezalakoak ikusten baldin baditu, eraginen bat izan dezakete.

GURE BASERRIKO PRODUKTUAK: ZERTAN DIRA EUSKAL TROLLAK?

Ez baikara mundutik aparte bizi, Euskal Herrian ere troll kontu hauek izan dute agerpen ikusgarriarik. Ondorengo orrialdeetan gurekin hitz egin duten @diariofatxo eta @aranagoiri Twitter profilak dira ezagunenak. *El Diario Vasco*ren ildo editoriala egunero auzitan jartzen duen egunkari-parodia lehenbizikoa, EAJren fundatzailea gaur egungo gaiei buruz hizketan jartzen duena bigarrena.

Baina hizkuntzaren gaiak kezkatzen gaitu: bi troll horiek, eta Euskal Herriko gaiei buruz diharduten beste hainbat, erdaraz ari dira nagusiki. Euskaraz egindako saiakera batzuek lortu zuten publikotxo, @Euskaltroll izenekoak adibidez, baina azkenaldian ez dago oso aktibo.

Artikulu hau idazteko landa-lan gisa, kazetariak zenbait trolleatze saiakera egin ditu, bai bere kontu pertsonala baliatuz –politikariren bat eztabaida gogaikarri samar batera behartzea lortu zuen, baina ez zen askoz urrunago iritsi–, baita anonimoki ere: hedabide euskaldun digital batean utzitako iruzkin bakarrarekin jabetu zen zein erraza den izenik eman nahi ez duen erabiltzaileari maskara kentzea euskaraz arituz gero. Komunitate txikiegia ote gara mota honetako praktikek arrakasta izan dezaten? Denok gutxi gorabehera elkar ezagutzen dugun herrian, izenabizenez trolleatzea ote da aukera bakarra? Erantzunak ez dabiltza haizean, Dylanek kantatuko lukeenez, eguneroko testu jario digitalean baizik. ■

Arana'tar Sabin (@aranagoiri)

«Zuzentasun politikoan gehiegi sinesten ez dudala agerikoa da»

Sabin Arana Goiri, “Osaba Sabin” gisa Sere ezaguna. Nork esan behar zigun EAJren sortzailea, euskal abertzaletasunaren fundatzailea, nazionalismo espainiarrak hainbeste gorrotatzen duen pertsonaia historikoa berpiztu egingo zela? Ez da miraria, Arana'tar ezagunenak Twitterren egon behar zuela pentsatu zutenen obra baizik. Euskal Herriko troll-izarretako bat da, baina aurkitu du tartetxo bat lege zaharren arabera kudeatzen duen agendan gure galderei erantzuteko.

Lehenbizi galdetuko nizuke: “nor da @aranagoiri?”. Baina elkarrizketa honen helburua ez da inori maskara kentzea beraz, bigarren galderatik hasiko gara: nola sortzen da Sabin Aranarekin troll bat egiteko ideia?

@aranagoiri sortu aurretik, 2011ko udan, euskal txioesfera forma hartzen hasia zen, baina erdal komunitateek jada garatuta zeuzkaten hainbat elementu falta zitzaizkion, tartean kontu parodiakoak. Lehenengo euskal *fake* esperimentua Jon Miranderren kontua izan zen, eta horren nolabaiteko harrera onak adierazi zigun bazegoela bide bat jorrazteko kontzeptu horren inguruan. Pertsonaiaren hautaketaren gainean ez dago gauza handirik esateko: Arana jauna oso ezaguna da, erreferentziala da eta batez ere atemporal, gaur egungo pertsonaiek baino askatasun handiagoa



ematen zigun. Guk egin izan ez bagenu, beste batek egingo zuen.

Troll politikoei buruz ari gara, hau da, eztabaidak lehertzea beste helbururik ez duten sareko ohiko trollen aldean, helburu politiko argiagoa daukate-nez. Zure burua definizio horren barruan kokatuko zenuke? Zein da @aranagoiri bezalako kontu baten helburua?

Hasieran guztiz esperimental eta ludikoa zen, Twitterren erreferentzia euskaldunak txertatzeko gogoia besterik ez. Hori presaka egin zen eta handik gutxira Twitterreko Sabin Arana hobeto lan-tzen saiatu ginen, pertsonaiaren errepresentazio historiko gaurkotua-edo. Baina maketoei buruzko txantxak egiteak ibilbide mugatua du, eta aspaldi desbideratu ginen, jada ez da *Arana ta Goiri'tar Sabin*, @aranagoiri baizik, moztorra mantenduz diskurtso eta koordinada propio agerikoak dituen. Helburuak, gaur egun, nagusiki ludikoa izaten jarraitzen du, lerdokeriak esaten ondo pasatzen dugulako egiten dugu, baina argi dago ertz asko dituela: zirikatzea, informatzea, eztabaida sortzea, diskurtso politiko argi samarra—lerro artean irakurri ahal duenarentzat—...

Arana jauna, batzuetan badirudi ez zaudela oso ados EAJren egungo ildo politikoarekin. Alderdia berriz gidatu ahalko bazenu, zein neurri hartuko zenituzke? Edo, zein beste alderditan egongo litzateke Sabin Arana gaur egun?

Politika-fikzioan sartzea hutsala litzateke eta nahikoa egiten dugu sasi-politologo eta sasi-historialariarena sarean. Arana jaunaren ibilbide laburrak EAJren “bi aurpegi” famatuak nahasi zituen, eta auskalo. Geure @aranagoiri errotiko independentista da, eta beraz arazotxo batzuk ditu gaur egungo Sabin Etxeko buruzagitzarekin. Zaila da 120 urtez itxaron duen norbaiti pazientzia eskatzea. *Comunión* gutxiago eta *Aberri* gehiagor gura du.

EAJren sortzailearen irudi serio eta nolabait solemnea gordetzen du memoria kolektiboak. Are gehiago, haren irudia demonizatu ere egin dute zenbait sektore politikok. Benetako Sabinen zer parte gorde duzue eta zer gehitu diozue zuen alde-tik?

Osaba Sabinen moztorroaz baliatu gara geure pertsonaia propioa sortzeko, baina figura historikoa defendatzeko edo gutxienez testuinguru egokian ebaluatzeko asmoa mantendu dugu. Ez

da onargarria Cánovas del Castillo esklabista zuritzen duen ganorabako batek Arana arrazista deitzea, edota ageriko nazionalista espainiarrek “*aranista*” irain gisa erabiltzea. Historiak eta hemerrotekak asko laguntzen digu kasu hauetan, normalean ez dugu ahalegin handirik egin behar horrelako diskurtso hipokritak agerian uzteko. Bestalde, argi dago egiazko Sabinen alderdi batzuk ez ditugula behar bezala zaintzen, geure osaba Sabin kristau nominala besterik ez da, izatekotan, eta hiztegi nahiko gaurkotu, basati eta paganoa dauka .

Kontua kudeatzen duzuen benetako pertsonen aldean, zein abantaila ditu Sabin Arana bezala ari-tzeak kritika politikorako? Zer dauka alde eta zer kontra benetako izen-abizenak eman gabe txioka-tzen duenak?

Abantailarik argiena izenak berak ematen digu, markak. Gure edukia hobea edo okerragoa izan daiteke—gu orokorrean pozik gaude *produktuarekin*—baina txantxa berbera geure izen-abizenekin sinatuz egingo bagenu—egiten dugunean!—ez genuke horrelako erantzunik lortuko. Gure jarraitzaile kopurua ez da soilik balizko *modus ope-randi* egoki baten ondorio, hein handi batean bir-ziklatutako—nahi bada, hilotz bati lapurtutako—izen batek emana da. Nolabait Sabin Arana marka gure mezuaren mesederako bahitu dugu eta horrek ematen digu pertsonaiaren jatorrizko izaerarekiko gutxieneko ardura hori.

Anonimotasuna abantaila da beraz?

Anonimotasunak inpunitatea dakarrela diote batzuek, eta arrazoia izango dute, baina kritikara-ko askatasuna dakar era berean, eta *Operación Ara-ñaren* garai nahasi hauetan eskertzekoa da. Iraine-rako bide lasaigoa ematen du, eta gaur egun badira irainak merezi dituzten pertsona publiko asko eta asko. Agerikoa da ez dugula zuzentasun politikoan, “errespetu formalean” gehiegi sines-ten. Hala ere, gu beti iraina argudioarekin lotzen saiatzen gara. Seguruenik noizbait anonimotasuna

gehiegikeriaz erabili dugu, erraza da kale egitea zirikada eta irainaren arteko mugan dantzan zabil-tzanean, baina guretzat merezi du. Baten batek esan lezake koldar hutsak garela ezizen baten atzean aritzeagatik, baina ez zaigu axola. “Pinta-dek esaten dute paperek isiltzen dutena” abestu zuen nafar batek, eta guk “anonimoek esaten dute sinadurek isiltzen dutena” gehituko genioke horri.

ZuZeun bloga ere abiatu zenuen, 2012tik berritu gabe dago ordea. Twitterren aldean interakzio gutxiago dituzten formatuetan deserosoago senti-tzen da @aranagoiri bezalako norbait? Ala bloge-rako idazteko denbora falta (edo alferkeria) da?

*ZuZeun*ko lagunek proposatutako formatua da –edo zen?–, eta zoritxarrez ez diogu inoiz neurria hartu. Azken bi urtetan pare bat aldiz egon gara bloga berreskuratzeko zorian eta ez da gertatu. *Txiokiñean* eta *Txiokiñerako* sortu zen @aranagoi-ri, eta han dago erosoan. Denbora falta aitzaki gisa erabil genezake, eta noizbait Hasier Etxebe-riarekin aurrez aurre berba egitekotan hala egin-go dugu, baina momentuz lasai asko onar deza-kegu geure errua besterik ez dela.

Umorea, ironia eta sarkasmoa erabiltzen dituzue komentario politikorako. Zentzu horretan, uste duzue sare sozialek lehen existitzen ez zen espazio berri bat zabaldu dutela? Hau da, Twitter kontu bat kudeatu aurretik, termino horietan hitz egiten zenuten politikaz ala medioak berak laguntzen dio mezu mota horri?

Twitterren aurretik Interneten bazegoen politi-kaz hitz egiterik, foroetan eta abar, baina sare sozialek ate desberdinak ireki dizkigute. Badira haien kontua pertsonalki kudeatzen duten politi-kari edo pertsonaia publiko garrantzitsuak, esa-terako. Horiek biluzik daude, tiro egin diezaiezun esperoan. Diskurtso publikoa pixka bat “demo-kratizatu” da, ez genuke inuzenteeiak izan nahi, baina honen harira politikaren munduak babes-geruza txiki bat behintzat galdu du. Moldatuko dira, medioa oraindik nolabait berria delako, eta



Irainak erabiltzen ditudanean ere, argudioekin lotzen saiatzen naiz. Eta gaur egun badira irainak merezi dituzten pertsona publiko asko

asmatuko dute kalte potentzialak gutxitzeko moduren bat –eta hala ere, agerikoa denez Twi-ter ez da eztabaida sakonak garatzeko inolako esparru egokirik– baina bitartean herritarrek badute iritzia eta harremanak sortzeko esparru txiki kaotiko samar bat, eta ez da gutxi.

Ohiko trollak geldiarazteko mekanismoa aspaldi asmatu zen: *“don’t feed the troll”*, hau da, @ara-nagoiri bezalakoek diotenei kasurik ez egitea. Baina badirudi zuekin ez duela funtzionatzen: jen-dea haserretzen jarraitzen duzue. Mekanismo bereziren bat erabiltzen duzue probokaziorako?

Probokazioa berez hutsala da, atzetik iraintzeko edo sumintzeko asmoa besterik ez dakarrenean. Probokazioak halabeharrez funtzionatzen du atzetik mezua eta intentzioa dakarrenean, eta gu horretan saiatzen gara. Twitterreko publiko zabal batek hori estimatzen du. Jarraitzaile kopuru handiak ere laguntzen du, zaila da intentzio gar-biarekin heltzen zaizun zartako bati inolako erantzunik ez ematea, baldin eta publikoki doze-naka pertsona zutaz barrezka dauden.

Eta orain sutzen direnek jarrera bareagoa hartuko balute? Zer gertatuko zaio Twitterreko Sabin Ara-nari ultra-espainiarrek aniztasun nazionala bezala-ko kontzeptuak barneratzen dituztenean? Kasu horretan edukiko luke espazio politikorik @arana-goiri-k sarean?

Bai, @aranagoiri ez dagoelako bakarrik kanpora begira. Saiatzen gara zartakoak ezker-eskuin eta etxean zein kanpoan banatzen, nahiz eta gero

eskuak intuitiboki erosoagoa zaion horretara jotzen duen. Baina Euzkadin asko dago egurtzeko, eta espainiar guztiek bihar balizko *Alfabetatzeko Demokratizatze Koordinakunde* batean izena emango balute ere, espazioa eta diskurtsoa izango genuke. *Trainspotting* eleberrian Irvine Welsh-ek ederki azaltzen du: “*They're just wankers, we are colonised by wankers*” (“Tontozakil hutsak dira, tontozakile kolonizatuta gaude”). Haiek oker baldin badaude, gu are okerrago gauden seinale da. Zauri horretan ere piko egin behar da.

Badira pertsonaia historikoetan oinarrituta antzeko jarduera daukaten Twitter kontuak. Baten bat bereziki gustuko duzue?

Zalantza dugu pertsonaia historikotzat har daitekeen, baina @TheTweetOfGod-en zale amorratuak gara. Euskarazkoetan Xalbador (@xalbadorrena) aipatuko genuke, nahiz eta parodia baino gehiago omenaldi #OngiEgina den. Euskal txiosferan izan zen kontu parodikoan olatutxo bat, historiko zein garaikideak, baina indarra galdu du, zaila delako horrelako profil zehatz bat mantentzea aspertu barik. Guk Telesforo Monzon ikusi nahi genuke osaba Sabinekin lehian. Erdaraz badira maila eta arrakasta handiko kontu parodikoak. Esaterako, @norcoreano eta @sergiosayas nabarmenduko genituzke.

Euskaraz eta gaztelaniaz idatzi ohi ditu txioak Osaba Sabinekin, baina gaztelania da nagusi: *aberrijaren* alde maketoen hizkuntzan? Ala *tuitstar* bat izateko hizkuntza nagusietara jotzea ezinbestekoa da?

Kontua sortzerakoan argi geneukan euskarazkoa behar zuela izan, baina prestakuntzarik gabe hasi ginen, presaka, eta hatxe bako euskara batu modukoan egiten zuen Sabin Arana geneukan (!). Baina kontzeptua gustuko izan omen zuen batek @LuisAranaGoiri sortu zuen segidan, eta rol-joko arraro batean sarturik, anaiak implizituki

irizpideak ezartzen lagundu zigun. Pixkanaka @aranagoiri-k euskaratik gaztelaniara egin du ihesi, eta gu kontraesan horretan bizi gara. Aurpegiratzen digutenean, *sabinera* izendatu dugun geure sasi-bizkaiera martzianoaren mugak jartzen ditugu aitzaki gisa, edo bestela *Gara* egunkariarekin batera gaztelaniaren normalizazio-prozesuari ematen diogunaren txantxa bota eta aurrera egiten dugu. Egia da gure pertsonaiaren atal ezinbesteko bat elementu erdaldunekiko interakzioa dela, “kanpo-pedagogia” esaten diogun hori. Baina ez da aitzakia. Egon da umorea arrakastaz eta soilik euskaraz Twitterren landu duenik, esaterako antza denez erretiroan dagoen @Euskaltroll. *Tuitstar* hitza kuantitatiboki erabiltzekotan, ez dakit euskarazkorik daukagun, komunitate txikia gara eta. Baina kalitate oso altuko umore eta txiogintza dago euskaraz, horretaz ez daukagu zalantza izpirik.

Sabin Aranaren bizitza kontatzen duen filma, Sabinen aurpegia duen Loreak Mendiaren kamiseta... Aranaren *revival* bat bizitzen ari gara? Zer eragin izan duzue horretan?

Nahi gabe Sabin Aranaren alegiazko *hipsterizazio* prozesu bat martxan jarri baldin badugu, belarriko joango gara Sukarrietako hilerria barkamena eskatzera. Loreak Mendiarekoei galdetu beharko litzaieke diseinu horretan @aranagoiri-k zerikusirik izan duen. Erantzunak jakin-min handia pizten digu, batez ere *royalty*ak eskatzeko orduan.

Estreinatu berri den *Sabin* telefilmaren grabaketan ordea ez dugu inolako merezimendurik, 2011n grabatu omen zelako. Hala ere, ospatzekoa da ETBk horrelako #drogagogorra ekoiztea. Ez dago gure txiorik Sabin eta Nikoleren arteko larru-jotze hori irudika dezakeenik. Asier Hormazak Akademiaren Oscar bat merezi du. Edo bi. ■

El Diario Fatxo (@diariofatxo)

«Jendeak *Diario Vasco* irakurtzeari utzi eta gu jarraitzen gaitu»

BATISTE EZEIZA



Niña Coyote eta Chico Tornado taldearen kontzertua, atzean *El Diario Fatxo*ren kartelarekin. Hainbat herritako jaietan agertu dira antzekoak, modu estraofizialean festen esponsor bihurtzeraino.

Gipuzkoan periodikoa erosi duzula esaten baduzu, gehienetan ez dizute galdetuko zein den ere, hainbestekoa da batek besteei ateratzen dien aldea. *El Diario Vasco* lortu du lurraldeko hedabide hegemonikoa izatea, bere publikoak haren ildo editoriala neutralizat jotzeraino –nahiz eta gauza jakina den izparringi bakar batek ere ez duela lortu munduan kualitate horren jabe izatea–. Nagusitasun mediatikoa lehiatuko dioten proiektuen faltan, 2014arekin batera troll bat sortu zen, *El Diario Fatxo* eta geroztik periodikoaren eguneroko markajea egiten du. Beharbada Euskal Herrian eragin handiena lortu duen trolla da, saretik kalerako saltoa ematea ere lortu baitu. Zer, nola, zein helbururekin? Egitasmoaren arduradunek ondorengo elkarrizketan azaldu dute.

“

Lurralde bateko botere faktiko indartsuenetako bati egurra emateko sortutako ekimena da gurea. Funtzio bat betetzen dugu eta horretarako antolaketa oso garrantzitsua da”

El Diario Fatxok bere burua troll gisa definitzen du ala zerbait zabalgatzen?

El Diario Vasco trolleatzen dugu, hor ez dago dudarik. Halere, egiten duguna ez da trolleatze hutsa, modu klasikoan ulertzen den trolleatzea. Gu ez gatoz eztabaida lehertzer, beren mezuari buelta ematera baizik, eta bide batez, barre pixka bat eragitera. Ironia eta kritika erabiliz, bere burua neutralizat aurkeztu zuen eragile bat bere lekuan jarri nahi izan dugu herritarren aurrean.

Zertan desberdintzen da *El Diario Fatxo* Twitterren dauden beste parodia-profil batzuetatik?

Lurralde bateko botere faktiko indartsuenetako bati egurra emateko sortutako ekimena dela gurea, eta hori ardura handia da. Funtzio bat betetzen dugu eta lana da hori. Horretarako antolaketa oso garrantzitsua da.

Zein izan zen inspirazio iturria?

Umiltasunez diogu, ez dugula gurea bezalako beste eragilerik ezagutu gu sortu aurretik. Ez behintzat horrela hedabide batekin guk daukagun jokabidea duen inor. Urtebete gure bidea asmatzen joan gara. Helburu txikiak jarritz, baina horiek lortzeko lan eginez. Gerora konturatu ginen *La Retaguardia* kontua existitzen zela *La Vanguardia* egunkaria kritikatzeko –eta egun ziber-lagunak gara–, baina oso bestelakoa da kontua. Eta gure ondoren, fenomeno txiki bat izan da, kontu asko sortu dira boterearen hedabi-

deen mezua agerian uzteko. Horrekin oso pozik gaude, batez ere *El Chorro Español* eta *Diario de Pataxarekin* [*El Correo* eta *Diario de Navarra*ren edukiak parodiatzen dituzte, hurrenez hurren]. Frankismotik hedabideak nahi bezala erabili dituzte, euren burua neutralizat aurkeztuz, herritarren %1aren interesak defendatzen zituzten bitartean. Nahikoa da beste %99a geure arteko liskarretan trabatuta edukitzeaz.

Zein da *El Diario Fatxo*ren helburua? DV desageraraztea, haren irakurleen artean kritikotasuna sustatzea, egunkari hori nolabait “erreformatzea”?

*Diario Vasco*k Gipuzkoan duen eragina hutsaren hurrena izatea lortzea.

Lehenago ere egon izan dira *El Diario Vasco*ren irudi publikoa auzitan jartzeko kanpainak: 1990eko hamarkadan, adibidez, ez zen zaila zenbait giroan “*Diario Vasco*: egi gutxi, gezur asko” zioten pegatinak ikustea. Zer aukera berri eskaintzen dituzte sare sozialek horrelako kanpainak martxan jartzeko?

Sare sozialek ematen digute aukera jarraikortasuna emateko ekimenari. Egunero mezua elikatzen. Egunero beren egunkaria irakurri eta beren posizioak agerian uzteko, aukeratzen dituzten hitzak nabarmentzeko, esan gabe buruan sartzen dizkiguten kontu guztiak identifikatu eta agerian uzteko. Eta noski, ateratzen ez dituzten albisteak zein diren identifikatzeko. Sare sozialek, gainera, publiko oso zabalarengana helarazteko aukera ematen digute.

Iruditzen zaizue lortu duzuela berez *Diario Vasco*ren kontra egon zitekeen jendeaz gain beste irakurle bat konbentzitzea?

Bai, inguruko jende dextentek esan digu gure ekimenari esker *Diario Vasco* irakurtzeaz utzi diola, edo orain konturatzen dela zelakoak sartzen dizkieten beren irakurleei. Hori oso pozgarria da.



Sareko ekimena zenak beste espazio batzuetara iristea ere lortu du. Argazkian, *El Diario Vasco* irakurtzeari uztea tabakoa uztearekin konparatzen duen mezua.

Eta horrela jarraitu behar dugu, tipula geruzaka pixkana zuritzen.

Kazetari gisa zalantza sortzen zait: gauza bat da edozein mediok argitaratzen duena aztertzea eta kontraesanak ateratzea, baina, zergatik hedabide jakin batekin bakarrik (eta hainbeste)? Zergatik jo *Diario Vascoren* aurka eta beste hedabide batzuk ez auzitan jarri?

Diario Vasco Gipuzkoan sinbolo bat da. Boterearen, *status quo*aren, frankismoaren, manipulazioaren, kapitalismoaren, patriarkatuaren, hipokresia-aren, manipulazio historikoaren eta beste gauza askoren sinboloa. Eta mundu hobe bat amesten dugulako, sinboloak identifikatu eta eraitsi behar dira.

Horrez gain, *Diario Vasco*k ikaragarritzko eragina zeukan gure gizartean. Berea zen egia bakarra eta hori amaitzea benetan beharrezkoa zen. Egun oraindik agenda markatzeko indar handia du eta laster horri helduko diogu. Ezin gaitu eskuin muturreko egunkari batek horrenbeste baldintzatu.

Hedabide baten sinesgarritasuna *El Diario Fatxo* bezalako ekimen batetik kolokan jarri nahi izatea ez al da paradoxikoa? Hau da: anonimotasunetik

“

Hedabide batentzat sinesgarritasuna da izan dezakeen gauzarik preziatuena. Horrek jartzen gintuen sutan: horrenbeste gezur eta erdi-egia esaten zituen egunkari batek nola izan zezakeen hain irakurketa akritikoa?”

eta konspirazio itxura elikatuz funtzionatzen duzue; egunkarian “sator” bat daukazuela esan izan duzue behin baino gehiagotan, adibidez. Klandestinitate horrek ez al du ekimenaren aurka jokatzen? Jendeak esan dezake *Diario Vasco* agian ez dela sinesgarria, baina zuek ere ez...

Hedabide batentzat sinesgarritasuna da izan dezakeen gauzarik preziatuena. Gu horrek jartzen gintuen sutan: horrenbeste gezur eta erdi-egia esaten zituen egunkari honek nola izan zezakeen horren irakurketa akritikoa? Zein erraz manipulatu zuen gizarte honen pentsamendu orokorra, benetan txundigarria zen. Eta oraindik ere hala jarraitzen du, baina geroz eta gehiago kostatzen zaio. Horregatik erabaki genuen bere sinesgarritasunari eraso egin behar geniola lehenik.

Ez dugu uste gure anonimotasunak sinesgarritasuna kentzen digunik. Hitzek ez, ekintzek ematen diote bakoitzari sinesgarritasuna, eta gure komunitateak ongi ikusten du zer lan altruista den egiten duguna. Gure denbora librean egiten dugu guztia, gure baliabide xumeekin, baina maitasun handiarekin.

Eta ez ahaztu *Diario Vasco*k ordezkatzeko duena Gipuzkoako jenderik boteretsuena da. Seguratasun neurriak mantendu behar ditugu. Lurralde honetako boterearen sinboloa ari gara kolokan jartzen eta ez gara hain inuzenteak.

“

Honen atzean jende asko dago,
bakoitza bere aita eta amarena.
Harrituko zinatekete zenbat jendek
egiten dituen ekarpenak pribatuan,
zenbat irakurketa, kartel eta
informazio”

“Horren atzean Bilduko jendea dago”, esan zidan lagun batek duela ez asko. Zer erantzungo zenio-kete?

Hemen atzean jende asko dagoela, bakoitza bere aita eta bere amarena. Harrituko zinatekete zenbat jendek egiten dituen ekarpenak pribatuan, zenbat irakurketa, kartel eta informazio. Zenbait ideiatan bat egiten dugula Bildurekin? Noski. Baina batez ere, *Diario Vasco*k sinbolizatzen duen horren aurka gaude.

Nori zuzenduta daude *El Diario Fatxoren* mezuak: egunero erosten dutenei, tabernan irakurtzen dutenei, oso zalea izan ez arren, kontrako jarrerarik ez duen jendeari? Hau da, egunkariak daukan publikoaren segmentu zehatzen bat du xede zuen lanak?

Hasieran asmoa egunkariaren sinesgarritasuna auzitan jartzea zen, eta horretarako bere irakurleengana jo genuen zuzenean. Orain pixka bat finkatu gara, jende askok *Diario Vasco* irakurtzeari utzi dio eta gu jarraitzen gaituzte. Gure komunitatea da hori eta asko maite ditugu. Jende hori da ahoz aho, txingurri lana eginez, gainontzeko jendeari *Diario Vasco*k zer egiten duen azaltzen diona, eta gure lana da egunero argumentuak ematea, arrazoiak, sare sozialak erabiliz milaka sukaldetara zuzenean sartzen den mezu horri buelta ematen laguntzeko.



Tematika lokaletan ere Gipuzkoako egunkari nagusiak argitaratzen duena auzitan jarri dute. Donostiako Amara auzoko bidegorriaren kasuak hainbat astetarako jokoa eman zion *Diario Fatxori*.

Askok ari gara hitz egiten sarean egiten duzuen lanaz, baina beharbada irakurleek ez dute ezagutuko. Egin duzuen ekintzaren bat kontatuko zenukete?

Gure trolleatze onenetako bat ondokoa izan da: *Diario Vascora* iritzi artikulua bidaltzen genituen, batzuk Bilduri egurra emanez eta besteak Bilduren alde. Ikusten genuen egurra ematen ziotenak bakarrik argitaratzen zituztela, baina horretaz berandu konturatu ginen, alegia, ezin genuen frogatu. Orduan, bururatu zitzaigun artikulua bat idaztea esanez atez ateko hondakin bilketa zerrikeria hutsa zela. Argitaratuko zutela bagenekien, eta esaldi bakoitzeko lehen hizkiarekin DIARIO-FATXO idatzi genuen. Gainera artikulua sinatzaile gisa frankismo garaian haurrak lapurtzen zituen moja baten izena jarri genuen. Barre asko egin genuen.

Interneti esker boterean dagoena –kasu honetan botere mediatikoa– trolleatu nahi duen ekimen batek zabalkunde handiagoa lor dezake, baina, mugak ere ba ote ditu? Sumatu al duzue zuen komunikatzeko moduak zenbait herritarren artean etsaitasunik piztu ote duen?

“

Umoreak asko laguntzen du mezua zabaltzen: imajinatu *Diario Vascoren* manipulazioak modu serio-serioan salatuko bagenitu. Ez genuke daukagun eraginaren laurdenik ere”

Sareak bere mugak ditu noski, baina espazio librea da eta doakoa. Jende gaztearengana heltzea da lehen helburua, egunkaria irakurtzen dutenen artean belaunaldi mozketara eragiteko. Pegatinekin asko trolleatu ditugu, milaka atara ditugu eta Gipuzkoa osoan banatu dira.

Horrez gain, udako kanpaina egin genuen – herriko jaietan pankarta umoretsuak egiteko eskatu genion jendeari–, geure burua aurkezteko asmoz, erabiltzen dugun izenarekin berarekin-gauza asko esaten baitiogu jendeari. Hainbat herritan kalean kartelak jartzen ditugu eta astero berritzen ditugu, Oñatin esaterako –bide batez, aupa Oñati!–.

Etsaitasuna? Beno, beren interesak kolokan ikusi dituzten horiei ez die grazia handirik egin gure ekimenak. Zer egingo zaio!

Zer paper betetzen du umoreak zuen komunikatzeko moduan? Mota diferentetako mezuak ikusi dizkizuegu: eduki politiko oso esplizitua dutenetatik ironia asko daukatenetara. “Trollak bai, borroka ere bai”? Zein da irizpidea une bakoitzean mezu mota bat edo bestea erabiltzeko?

Umoreak asko laguntzen du mezua zabaltzen: imajinatu *Diario Vascoren* manipulazioak modu serio-serioan salatuko bagenitu. Ez genuke daukagun eraginaren laurdenik ere. Txisteek gauza larriak jolas modura aurkezten laguntzen dute, eta horrela, publiko zabalagoarengana heltzen gara.

Gipuzkoako politika ez da –ez zen?– sekulako pasioak pizten zituen gaia, nahiz eta, noski, herritarren bizimodua baldintzatzen duten erabaki asko eremu horretako erakundeetan hartu. Zentzu horretan, kontrapropaganda egitea zailagoa da *El Diario Fatxorentzat*? Errazagoa litzateke, adibidez, irakurle guztientzat identifikagarriagoak diren esparru politikoak gaitzat hartuko bazenituzte?

Gure kritikak pedagogia egiteko ere baliagarriak dira. Adibidez, Zubietako errauskailuaren gaia. *Diario Vascok* ordezkatzan duen *lobby* errausle porlantzalearen ikaragarritzko manipulazioa jasan behar izan dugu Gipuzkoan. Eta gol itzela sartu ziguten, herritarren gehiengoak birziklatzea proposatzen zuen edozein ekimenen aurka jarritz. Hori ikaragarria da. Egun badugu funtzio sozial bat, eta gaiarekin matrakan jarraitzen dutenez, beren albisteak baliatzen ditugu atez atekoaren aurka egon zitekeen jende mota bati begiak irekitzen laguntzeko, esateko: “aizu, zergatik zaude atez atekoaren aurka? *Diario Vascok* dioelako zikina dela? Ez al zara konturatzen errauskailua erai-ki nahi dutela?”.

Trollak neutralizatzeko badago lema bat, “ez eman jaten”, alegia, ez erantzun dioenari. Zuen kasuan bete ote da? Berriki egunkariko zuzendariordea ikusi nuen *El Diario Fatxoren* txio bati erantzuten: interlokuzioa onartzeak esan nahi ote du, zuen presentzia onartu eta kontra-argudiatzera behartuta sentitzen hasi direla?

Trolla ez elikatzearen hori ongi dago trolla isolaturik badago, inork ez badio kasurik egiten eta ez badu eraginik. Baina ez da gure kasua izan sekula. Jendea gurea bezalako ekimen baten zain zegoen, hasieratik ikusi genuen, eta berehala iritsi ginen milaka jarraitzaile izatera. Eta orduan, dagoeneko zaila da zer egin erabakitzea. Erantzungo diegu? Ez? Baina tira, bai, gurekin sartzen dira, eta horrek asko poztzen gaitu ;-)

**ARGIAK HARPIDEDUN BAT
EGITEN DUEN ALDIRO...**



**HARPIDETZA BAKOITZAREKIN,
ARE INDEPENDENTEAGO**

ARGIA astero jasotzeko aukera:

hilean 12 € baino ez!*

ARGIA hilean behin jasotzeko aukera:

hilean 4 € baino gutxiago!**



☎ 943 371 545

harpidetza@argia.eus

www.argia.eus/harpidetza